



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, PORTUGALETEKO UDALAREN 2003-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARENA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Portugaleteko Udalaren 2003ko urtealdiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du. Berebat, Haurrentzako Gizarte Zerbitzuen Udal Fundazioa (Udal haurtzaindegia) erakunde autonomoaren eta Portugalete Berregokitze Hirigintza Sozietatea, SA (SURPOSA) eta Portugaleteko Udalaren Kirol Sozietatea, SA (DEMUPORSA) udal sozietate publikoaren fiskalizazioa barne hartzen du.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk aldeko iritzia eman du legea betetzea dela eta, salbuespen batzuk egin dituela.

Langileriari dagokionez, HKEEk azaleratu du 2004ko urtearen amaiera arte ez dagoela Lanpostu Zerrendarik. Halaber adierazi da bitarteko funtzionario baten izendapenean, guztira egindako 8statik eta izenpetutako aldi baterako 211 kontratuetatik 18tan, ez direla eskagarriak diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde. Printzipio hauste hau berdin gertatzen da DEMUPORSA eta SURPOSAn izenpetutako bi kontratu finkotan. Udal Haurtzaindegian enplegu poltsak sortzeko bideratu den prozedurari dagokionez, HKEEk adierazi du ez duela bermatzen eskagarriak diren printzipioak beteko direla, aurrez adierazi direnak.

Legezkontasuna betetzeari dagokionez, salbuespenak dituen beste atal bat HKEEk aztertutako zenbait espedientetan administrazio kontratazioak osatzen duena da.

Salbuespen hauek hainbat zerbitzuen jarraikortasunari dagozkio (lorategien zaintza, bide garbiketa, eguneko zentro eta zaharren egoitza zerbitzua), horiek arautzen zituzten kontratuak jada iraungiak zirela.

DEMUPORSA sozietateari dagokionez, udako igerileku inguruko obren eta hainbat kirol zerbitzuren kontratazioetan ez direla publizitate eta lehia printzipioak gorde adierazi da.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Udal kontuei dagokienez, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du egoki erakusten dutela udal jarduera, nahiz aurkeztutako datuei hainbat zuzenketa egin zaizkien. Ondasun eta eskubideen zerrenda eza ere azpimarratu da.

Finantzaren egoerari dagokionez Udalak egungo inbertsio mailei eusteko duen gaitasuna azpimarratu da, nahiz azken ekitaldietan Aurrezki Garbiak behera egin duen eta honek berarekin Diruzaintza Gerakinak behera egitea eragin duen.